

Ebazpena: R032/2025

Espedientea: E079/2022

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 29a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek, eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) gatazka planteatu du Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren aurrean (aurrerantzean, ZAEA). Gatazka horren helburua da zehaztea agentzia horrek eskumenik daukan ala ez alde bakarrez erregularizatzeko– hau da, BFari prozeduran parte hartzen utzi gabe– X/XX talde fiskalaren eragiketa lotuak 2015 - 2017 aldiko ekitaldietako sozietateen gaineko zergen esparruan (aurrerantzean, SZ) –talde fiskal horren egungo ordezkaria IBERDROLA ENERGIA ESPAÑA SA enpresa da (lehen, IBERDROLA CLIENTES ESPAÑA SA; IFZ: XXXXXXXXX1), eta haren aurreko nagusia IBERDROLA SA zen (IFZ: XXXXXXXXX1)– alboko foru-eskumen ikuskatzailearekin batera, eta ea aukerarik dagoen erregularizazio hori hel dadin 2015eko eta 2016ko ekitaldietako gizarte-bonuaren kostura. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 79/2022 zenbakiko espedientean.

I. AURREKARIAK

1.- IBERDROLA SAK (IFZ: XXXXXXXXXX1) Bizkaian dauka zerga-egoitza. 2019ko abenduaren 31ra arte, SZren X/XX talde fiskaleko sozietate nagusia izan

da. 2020ko urtarrilaren 1etik, talde fiskaleko sozietate nagusia IBERDROLA ENERGÍA ESPAÑA SA da (IFZ: XXXXXXXXX1), lehen IBERDROLA CLIENTES ESPAÑA SA zena, eta horren aurretik IBERDROLA GENERACION ESPAÑA SA.

2015 - 2017 bitarteko ekitaldietan, X/XX talde fiskalari araudi erkidea aplikatu zitzaion (eta, logikoki, urte horietan taldeko sozietate nagusiak izan direnei ere bai), eta araudi erkidearen mendean eta ZAEAREN ikuskapen-eskumenaren mendean egon zen.

2.- 2020ko ekainaren 1ean, ZAEAK irismen orokorreko egiaztapen bat abiatu zuen, eta hiru akta egin zituen: AXX-XXXXXXX1, zerbitzu korporatiboak erregularizatzeko; AXX-XXXXXXX2, finantza-zerbitzuak erregularizatzeko, eta AXX-XXXXXXX3, gizarte-bonuaren kostua erregularizatzeko.

3.- 2022ko uztailaren 7an, sozietate nagusiek BFAri jakinarazi zioten zer akta egin zizkion ZAEAK X/XX talde fiskalari .

4.- 2022ko irailaren 7an, BFAk ZAEARI eskatu zion inhibitzeko, X/XX talde fiskalaren eragiketa lotuak alde bakarrez erregularizatzeko eskumenari dagokionez, berari parte hartzen utzi gabe, uste baitzuen lehen mailako doikuntzaren aldebikotasunak foru-eskumen ikuskatzaileko entitateei eragiten ziela. Horrez gainera, BFAk desadostasuna agertu zuen aukera zegoelako eragiketa lotuen ondorioz elektrizitatearen gizarte-bonuaren kostuaren zati bat IBERDROLA SA sozietate nagusiko merkataritza-taldeko entitateei egozteko, baina ez X/XX talde fiskalekoei.

5.- ZAEAK isilbidez uko egin zion inhibizio-errekerimenduari.

6.- 2022ko azaroaren 4an, BFAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen, eta 79/2022 zenbakiko espedientean izapidetu da prozedura arruntaren bidez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Ekonomia Itunaren 66.Bat artikulua ezartzen du hauek direla Arbitraje Batzordearen eginkizunak:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

8/2012 ebazpenean adierazi zen bezala, gatazka hau egokitu egiten da Ekonomia Itunaren 66.Bat artikulua b) letran luze eta zabal arautzen denera.

2.- Lagundu beharraz.

Arbitraje Batzorde honek lagundu beharraz jardun du zenbait aldiz: 1/2025, 39/2023 ebazpenak (12/2016 eta 29/2016 gatazkei buruzkoa; metatua). Azken horretatik, pasarte egoki batzuk aterako ditugu:

«Sozietateen gaineko zergari lotutako eragiketen doikuntzen alde bikotasuna iruzur fiskala prebenitzeko neurriei buruzko 36/2006 Legearen bidez sartu zen. Lege horrek 16. artikulua aldatu zuen, bi zentzutan:

a) Zergak merkatu-balioaren arabera ordaintzeko betebeharra sartu zuen.

Ordura arte, zergapekoak hitzartutako balioaren arabera tributatzen zuen, eta administrazioak egiaztatzen bazuen balorazio horrek eragiten zuela Espainian geroratzea edo zerga gutxiago ordaintzea, merkatuko balioaren arabera erregulariza zezakeen.

b) Behin-behineko erregularizazioak alde biko doikuntza batekin egiteko betebeharra ezarri zitzaion administrazioari, lotura-perimetroko entitateen gehiegizko zergapetzea saihesteko».

Arbitraje Batzordeak 16/2009 gatazkan emaniko 8/2012 ebazpenak lehen aldiz zuen lagundu beharra zegoela prozeduretan egiaztatu behar denean zein diren beste administrazio baten eskumeneko zergapekoei alde bikotasunagatik eragiten dieten eragiketak.

8/2012 Ebazpenaren zazpigarren zuzenbideko oinarrian Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen 16. artikulua aztertzen da, eta honako hau aipatzen du:

«SZLren 16.1.1 artikulua eragiketa lotuen tributazioari buruzko funtsezko printzipioa jasotzen du, honakoa ezartzean: "persona edo entitate lotuen

artean egindako eragiketak merkatuko ohiko balioaren arabera baloratuko dira”».

Arbitraje Batzordeak, baloratzeko ea gauzatu behar ote den sozietateen gaineko zergari eragiketa lotuen esparruan BFAk defendatzen zuen elkarlana , abiapuntutzat hartzen du nazioarteko fiskalitatearen esparruko transferentzia-prezioen azterketa (haren xedea da zerga-oinarriak zergapetzea sortzen diren estatuetan , saihestuz artifizialki aldatzea onurak abantaila gehien dituzten zerga-subiranotasunetara). Horren ildotik, hara zer dioen 8/2012 Ebazpenak:

«Printzipio hori lehen-lehenik nazioartean finkatu zen, Estatu berekoak ez diren entitate lotuen kasuan oinarri ezargarria entitate horien artean banatzeko irizpide gisa. Espainieraz normalean “principio de plena competencia” deritzoten printzipio horren helburua zerga-iruzurra borrokatzea ez bada ere, printzipio horri jarraitzeak eragotzi egiten du sozietate multzoetan etekina tratamendu fiskal onuragarriena jasoko duen lekuan ezartzea, beste Estatu batean egozteko eskubide legitimoaren kaltetan».

«Nazioartean, doikuntzaren aldebikotasun hori zehatz-mehatz ezarrita dago, besteak beste, ELGAren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zerga Itunaren Ereduko 9. artikulua 2. apartatua. Horren arabera, gainera, kasuan kasuko doikuntza lortzeko “Estatu kontratatzaileetako agintari eskudunek elkar kontsultatuko dute, beharrezkoa denean”.

Hortaz, aldebikotasunak ez du esan nahi Estatu batek finkatutako transferentzia-prezioa beste estatuak pasiboki onartu behar duenik. Ereduaren 9. artikulua 11. apartatuaren iruzkinean adierazten denez, Estatu kontratatzaileen artean doikuntza horri buruz desadostasuna sortzen bada, Ereduaren beraren 25. artikuluan xedatutako adiskidetasunezko prozedurara joko da. Europar Batasunaren esparruan indarrean dago enpresa lotuen etekinak zuzenduz gero zergapetze

bikoitza ezabatzeari buruzko Ituna (90/436/EEE, 1990eko uztailaren 23koa), xede horri begira, adiskidetasunezko prozedura bat jarraitzea aurreikusten duena. Eta, bide horretatik adostasunik lortu ezean, arbitraje prozedurara jotzea xedatzen du, honetan ematen den ebazpena ezartzeko, azkenean, Estatu interesdunei. ELGAren Ereduaren 25. artikulua 2008. urtean aldatu zenean, halaber, arbitraje fase bat sartu zen artikulua horretan araututako adiskidetasunezko prozeduran».

Hortik aurrera, Arbitraje Batzordeak elkarlanean aritzea beharrezkotzat jotzeko erabiltzen duen arrazoi nagusia da ezen, nazioartean prozedura bat badago gehiegizko zergapetzea saihesteko («aldebiko doikuntza» deritzonaren bidez), arrazoi handiagoz eskatu behar dela barne-eremuan. Hala, Arbitraje Batzordeak honako hau adierazi du:

«Bada, gure iritziz badago behar beste arrazoi Gipuzkoako Foru Aldundiari era horretako parte-hartzea —nazioartean adiskidetasunezko prozedura bereizgarri gisa deskribatu dugun parte-hartzea— onartu behar zaiola pentsatzeko; hau da, administrazioen artean informazioa trukatu behar dela, eragiketa lotuen baloraziotik etorritako doikuntzak gauzatzearen inguruan sor daitezkeen desadostasunak fede onez konpontzen saiatzeko.

Arrazoi horietan lehenengoa eta funtsezkoa da, nazioartean elkar kontsultatzeko eta eragiketa lotuen doikuntzari buruz sortutako desadostasunak elkarrekiko akordioaz konpontzen saiatzeko betebeharra ezarri bazaie Estatuei, betebehar hori are zentzuzkoagoa da estatu baten barruan, eta, ondorioz, antolamendu juridiko beraren barruan. Izan ere, antolamendu horren aplikazio esparruan ez litzateke onargarria izango administrazio batek gai honetan hartzen dituen erabakiak beste administrazioari ezbairik gabe ezartzea, administrazio hau bi hautabide hauetakoren bat aukeratu beharrean geratuko bailitzateke: lehenengo

administrazioak egindako balorazio-zuzenketa onartu eta bidezko doikuntza kopuru berean egitea, zergapetze bikoitza saihesteko; edo bestela, eragiketa lotuen balorazioa bere aldetik egitea, zergapetze bikoitza sortzeko arriskua eraginez».

Azaldutakoaren arabera, 8/2012 Ebazpenean (16/2009 espediente) soilik ebazten da zein den sozietateen gaineko zergaren kargapeko eragiketa lotuen erregularizazioaren arazo zehatza , eta, horretarako, zerga horri espresuki dagozkion oinarri juridikoak erabiltzen dira, hala nola maiz aipatutako ELGAren hitzarmen eredua (haren iruzkinak ebazpenean aipatzen dira bere arrazoibideen alde) eta Europako Arbitraje Hitzarmena. Orduan, nazioarteko testuinguruko logika barne-eremura eramanez nahi zen, baina mugatuta zergapetze bikoitzeko hitzarmenen eremura (soilik errentaren gaineko zerga jakin batzuei buruzkoak), eta elkarlan horrek bere barnean hartu gabe tributu-sistema osoa. Horretaz gainera, ELGAren hitzarmen ereduko iruzkinak ez dute inolako balio juridikorik, nahiz eta interpretazio jakin baten alde erabil daitezkeen.

Arbitraje Batzordearen 15/2018 Ebazpenak (geroago emandakoa, 22/2013 eta 3/2015 gatazketan metaturik) berriro ekin zion lotutako entitateen arteko eragiketak erregularizatzeari, balioespen-zuzenketa egiteko ikuskapen-eskumena eta aldebikotasunaren ondoriozko doikuntza zerga-administrazio desberdinei egokitzen zaien kasuetan.

15/2018 ebazpenean, arrazoi hauek azaltzen dira: *«Bere eskumenak gauzatzean administrazio bakoitzak erabateko autonomia duenez bere zergapekoen egiaztapena eta erregularizazioa egiteko, aldebikotasun horrek ez du esan nahi eragiketako alderdietako bati lehendabiziko doikuntza egiten dion administrazioak bere balioespen-irizpideak inposa diezazkiokeenik aldebiko doikuntza egiteko eskumena duen administrazioari, ezta, arrazoi beragatik, azken horrek lehendabizikoak finkatutako balioak modu pasiboan onartu behar dituenik ere».*

Hala ere, Arbitraje Batzordeak ulertzen du zein den, alde batetik, 16/2009 gatazkaren (SOS CUETARAn jorratua) eta, bestetik, 22/2013 eta 3/2015 gatazken arteko desberdintasun nagusia. Desberdintasun horrek eragin dezake *«8/2012 Ebazpenean planteatutakoaren arabera jardutea ez eskatzea, beste bat izanik itundutako administrazioek eurek Ekonomia Itunaren 4. artikuluko elkarlanaren printzipioa betetzeko adostutako modua, ikuskapen-jarduerak eragiketa-bolumenaren proportzioan zergak elkarrekin ordaindu behar dituzten zergadunen gainean egiten direnean»*.

Hala, funtsezko desberdintasun hori da 22/2013 eta 3/2015 espedienteetan ikuskatzeko eskumenik ez duen administrazioa ez dela babesik gabe geratzen ikuskatzeko eskumena duen administrazioaren aurrean, espresuki aukeratu baita mekanismo bat, zeinak espezifikoki lortzen baitu koordinazioaren emaitza; alegia, akta bakarraren bidez erregularizatzea. Gainera, administrazio honek aukera izango du, behin akta bakarra trukatu eta gero, desadostasuna agertzeko erregularizazioari buruz , eta administrazio horrek du eskumena ikuskatzeko transferentzia-prezioen doikuntzaren alde bikotasunak ukitutako zergapekoa.

Oinarrizko ezberdintasun horrek zehazten du kontua ez dela ikustea ea 8/2012 Ebazpena betetzen den eragiketa lotuen espediente bakoitzean, ebazpen horrek arau-hutsune bat izango balu bezala; izan ere, *«ebazpen bakoitza berezko jazoera eta inguruabarren baitakoa»* da. Bestela esanda, 8/2012 Ebazpena ezin daiteke hitzez hitz aplikatu eragiketa lotuak erregularizatzen dituen edozein kasutan, ez baita Ekonomia Itunaren arau prozesal bat. Halaxe da, Arbitraje Batzordeak jada adierazi duenez, *«BFAk esleitu asmo dion Ekonomia Ituna "txertatzeko" eskuduntzak, arbitraje-gatazka baten ebazpenaren berezko ondorioak gainditzeko ditu, harago joz. Batez ere, legegintzako eskuduntzaren titularrari legez "administrazio-egintzak burutzeko prozedura" arautzeko eskumena gordetzen zaiolarik (Espainiako Konstituzioaren 105.c) artikulua), abenduaren 28ko 10/2017 Legea iritsi arte legegileak ez zuenean beharrezkotzat*

jo Ekonomia Ituneko 2. eta 4. artikuluetako eduki materiala zehaztea, eragiketa lotuen kasu horietarako zerga-administrazioen artean elkarlanean aritzeko betebeharrak eta ikuskapenarekin lotutako eskumenak koordinatzeko arauak ezarriz». «Horregatik, haren edukiaren abstrakzioa eginez, ulertu behar dugu GFaren arabera bete ez diren “prozedurazko arauak” 16/2009 gatazkan 8/2012 Ebazpenak Itunaren printzipio orokorreko (2. artikulua) eta, zehazki, elkarlanaren printzipiorako (4.Hiru artikulua) eskakizunen gainean egindako zehaztapena baino ez direla, eta Arbitraje Batzordeak horietara jo beharko zuela, ebazteko arau adosturik aurreikusten ez zenez».

Beraz, ondorio gisa: «Aurrez adierazitako guztitik ondorioztatzen da prozedura honetan erabakitzen dena ez dela Arbitraje Batzordearen 8/2012 Ebazpena betetzea, baizik eta kasu honetan Ekonomia Ituneko 2. eta 4. artikuluetan araututako koordinazio eta elkarlanaren printzipio orokorrak interpretatu eta aplikatzen eratorritako eskakizun zehatzak».

Gatazka honen xede den kasuan, Arbitraje Batzordeak kontuan hartu zuen ZAEAk akta bakarraren bidez baliatu zuela bere eskumena, eta hori, berez, Ekonomia Itunean aurreikusitako lankidetzak-formula bat dela, eta, nahiz eta foru-aldundiari partaidetzarik ez eman egiaztapen-jarduketan, izapidetu zela «2006ko maiatzaren 18ko bileran onartu ziren Zerga-kontrolari eta akta bakarrei buruz lantaldeak ateratako ondorioen» arabera , eta, beraz, ez zela erabaki aktak baliogabetzea.

Bada, 15/2018 Ebazpenean, Arbitraje Batzordeak berretsi egin zuen lotutako eragiketak erregularizatzen laguntzeko eginbeharra, eta hori ez zela erregularizazioaren alderdi substantiboek arduratzea. Ebazpen horretan, Arbitraje Batzordeak iritzi zion bi administrazioen arteko lankidetzak ezinbestean ekarriko zuela aldebikotasunaren eraginpeko lotura-perimetroko entitateek elkarren artean aplikatzea sinatutako aurretiko balorazio-akordioak (APA) , eta, ondorioz, erabaki zuen arintzea irizpide horien erregularizazioa.

Era berean, erregularizazio osoari buruzko jurisprudentzia zabala eta finkatua aipatu behar da (besteak beste, Auzitegi Gorenaren epai hauek: 2019ko azaroaren 13koa —ECLI:ES:TS:2019:3677—, 2020ko urriaren 2koa —ECLI:ES:TS:2020:3051—, 2021eko maiatzaren 26koa —ECLI:ES:TS:2021:2242—, 2021eko apirilaren 22koa —ECLI:ES:TS:2021:1557—, 2014ko urriaren 23koa —ECLI:ES:TS:2014:4286—, 2015eko urriaren 7koa —ECLI:ES:TS:2015:4300—, 2019ko irailaren 25ekoa —ECLI:ES:TS:2019:3705—, 2008ko apirilaren 3koa —ECLI:ES:TS:2008:1658—, 2013ko irailaren 18koa —ECLI:ES:TS:2013:4586—, 2014ko urtarrilaren 23koa —ECLI:ES:TS:2014:432—, 2014ko azaroaren 6koa —ECLI:ES:TS:2014:4592—, 2019ko urriaren 10ekoa —ECLI:ES:TS:2019:3287—, 2019ko urriaren 17koa —ECLI:ES:TS:2019:3263—, 2012ko urtarrilaren 26koa —ECLI:ES:TS:2012:483—, 2017ko apirilaren 17koa —ECLI:ES:TS:2017:1503—, 2015eko urriaren 25ekoa —ECLI:ES:TS:2015:4507—, eta 2020ko ekainaren 11koa —ECLI:ES:TS:2020:1884—), bai eta administrazio onari buruzko jurisprudentzia ere (Auzitegi Gorenaren epai hauek: 2020ko irailaren 17koa —ECLI:ES:TS:2020:1182—, 2020ko irailaren 22koa —ECLI:ES:TS:2020:3060— eta 2020ko urriaren 29koa —ECLI:ES:TS:2020:3734—); haiek berresten dute ZAEAk BFari parte hartzen utzi behar ziola lotutako eragiketak sozietateen gaineko zergan erregularizatzeko prozeduran, fede onez, saihesteko irizpide desberdinak hartzearen ondorioz lotura-perimetroko entitate guztientzat sortzen den gehiegizko zergapetzea.

3.- Gizarte-bonua.

Gizarte-bonua zerbitzu publiko gisa eratu zen, zeina enpresa elektrikoek finantzatu behar baitzuten azken baliabideko tarifari atxikitako kontsumitzaile kalteberak babesteko, tarifa-defizita desagertzearen ondoriozko karga arintzeko.

Finantzaketa hori, ekoizpen-, garraio-, banaketa- eta merkaturatze-jardueraren bat edo batzuk egiten dituzten sistema elektrikoko operadore guztiei ezarri beharrean, eskusiboki egituratzen da bertikalki integratutako taldeen gainean, edo, behar denean, energia elektrikoa ekoizteko, banatzeko eta merkaturatzeko jarduerak aldi berean egiten dituzten sozietateen matrizeen gainean (matrizeak zer diren: Merkataritza Kodea, 42. artikulua).

Gizarte-bonuaren bidez finantzatu beharreko zenbatekoa banatu egiten zen energia elektrikoa hornitzen zieten bezeroen kuotaren proportzioan haren kostua beren gain hartzera behartuta zeuden subjektuen artean, eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (aurrerantzean, MLBN) kalkulatzeko, kontuan hartuta zein zen taldeko enpresen jardura zehatza.

9/2013 Errege Lege Dekretuaren zioen azalpenean adierazten zenez, matrize horiei betebeharrak hori ezartzeak aukera ematen zuen, zeharka bazen ere, karga hori banatzeko sektore elektrikoan ari diren enpresa-jardura nagusien artean. Horren arabera, banaketa horretatik kanpo geratuko litzateke garraio-jardura, baina salbuespen hori justifikatutzat jotzen da bat etorritik araututako jardueraren araubide juridikoarekin.

Auzitegi Gorenaren 2016ko urriaren 24ko epaiaren ondorioz (ECLI: ES: TS: 2016:4526,) itzuli behar izan ziren sozietateek edo taldeek gizarte-bonu gisa finantzatzutako zenbatekoak.

ZAEAREN ustez, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak zer sozietate hartu zituen kontuan gizarte-bonuaren kostua kalkulatzeko, sozietate horiei egotzi behar zaie finantzaketaren ondoriozko kostua kontuan hartu zituen sozietateei; izan ere, sozietate horiek egiten dituzten jarduerak ahalbidetuko lukete merkatutik berreskuratzea balizko kostua, eta, horrela, entitate berean kokatuko lirateke jardura batetik eratorritako gastuak eta diru-sarrerak. Ondorioz, ZAEAK

uste du lotutako barne-eragiketa bat dagoela entitate nagusiaren gizarte-bonuaren kostua helarazteko sektore elektrikoko jarduera zehatzak egiten dituzten entitateei, haiek baitira jarduera horietatik eratorritako diru-sarrerak lortzen dituztenak.

BFaren ustez, 9/2013 Errege Lege Dekretuaren arabera, jarduera zehatzak egiten dituzten entitateek ezin zuten berreskuratu gizarte-bonuaren kostua, baizik eta bertikalki integratutako taldeek, ekoizpen-, banaketa- eta merkaturatze-jarduerak aldi berean egiten zituztenek.

BFAk bere jarreraren oinarritzat hartzen du 961/2014 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan Estatuko Abokatutzak emandako argudioa. Haren arabera, sistema hori ezartzeko benetako arrazoa ez da integratutako enpresen ustezko gaitasuna eta kaudimena, baizik eta faktore erabakigarria honako hau zela: «... integrazio bertikala bera, aukera ematen baitu karga ezartzeko neurriaren xedearekin zuzenean lotutako merkaturatze-jarduera garatzen duten enpresei, baldintza bertikalki hobeto integratuta baitaude baldintza horren arabera, haien inpaktua neutralizatzeko eta minimizatzeko». Horrek bide emango luke –azaldu du Administrazioaren ordezkari prozesalak– elektrizitatearen sektorean aldi berean hainbat jarduera egiten dituen enpresa-taldeak sektorearen ezagutza sakonagoa duelako, eskalako ekonomia jakin batzuk dituelako, prezioen fluktuazioen eragina modernizatzen duten talde barruko kontratuak egiteko aukera duelako, etab.

Era berean, BFaren ustez, gizarte-bonuaren xedearekin zuzenean lotutako jarduerak ziren ekoiztea eta, funtsean, merkaturatzea, baina ez banaketa, zeina, gainera, jarduera arautua baita.

BFAk, halaber, desadostasuna agertzen du kostua lotutako mendeko sozietateen artean banatzeko irizpidearekin, Sektore Elektriakoari buruzko 24/2013 Legearen 45.4 artikuluan ezarritako irizpide berberei jarraikiz (ekitaldi horretan indarrean zegoen testua), Auzitegi Gorenak hasiera batean manu hori aplikaezintzat jo zuenean 2016ko urriaren 25eko Epaiaren bidez, besteak beste, bertan araututako sistemaren justifikaziorik ezagatik, eta «bateraezina izateagatik 2009/72/EE Zuzentarauaren 3.2 artikuluan ezarritako eskakizunarekin, zeinak ezartzen baitu zerbitzu publikoko betebeharrak argi eta garbi definitu beharko direla, gardenak, ez-diskriminatzaileak eta kontrolagarriak izan beharko direla, eta Batasuneko enpresa elektrikoei kontsumitzaile nazionalentzako sarbidea bermatu beharko zaiela, baldintza beretan; (...)».

Puntu honetan, adierazi behar da Auzitegi Gorenak ez zuela baietsi Estatuaren abokatuak 961/2014 errekurtsioan emandako argudioa, 2021eko abenduaren 21eko epaiaren bidez ebatzi baitzuen (ECLI: ES: TS: 2021:4769).

Aitzitik, Auzitegi Gorenak ebazpen horretan erabaki zuen gizarte-bonuaren konfigurazioak ez zuela behar besteko argitasunik ez gardentasunik, eta diskriminatzailea zela, ez baitzegoen behar bezala justifikatuta nola baztertu sektore elektrikoko jarduera bakar batean edo bitan zentratzen ziren sozietateak edo taldeak.

Ildo horretan, ZAEAk argudiatzen duenez, MLBNk aintzat hartutako enpresak taldeko kide izan ez balira, ez litzateke zalantzarik egongo kostua eta diru-sarrera haiei egozteari buruz. Halaber, haren arabera, taldeak ekoitzi eta merkaturatu ez balu, matrizea ez litzateke behartuta egongo bere gain hartzera inolako kosturik.

Une honetan, ez da egokia ezer erabakitzea gizarte-bonuaren kostua foru-ikuskapeneko eskumena duen merkataritza-taldeko menperatuei (beraz, X/XX talde fiskaletik kanpo daudenei) aldatzeko aukerari buruz, ezta egindako

kalkuluaren zuzenketari buruz ere; izan ere, aurreko oinarri juridikoak berekin dakar, ZAEAk 16/2009 gatazkan emandako 8/2012 ebazpena betearazi zuen bezala, BFArekiko lankidetzaren antolatu behar izatea eragiketa lotuen aktak hasi aurretik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKI DU

1.- Deklaratzea ZAEAk BFari aukera eman behar ziola parte hartzeko 2015-2017 aldiko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren kargapeko eragiketak egiaztatzeko prozeduran, datuak eta informazioa, irizpideak eta balorazioak trukatzuz, hartara, onustearen printzipioa aplikatuz, ekidin ahal izateko lotura-perimetroko entitate guztietan gainezartzea bi administrazioek aldebikotasunez aplikatzen ez dituzten erregularizazioak onartzearen ondorioz, espresuki ezer erabaki gabe gizarte-bonuaren kostuarekin lotutako doikuntzari buruz.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta IBERDROLA ENERGIA ESPAÑA SA sozietateari.

Sin.: Violeta Ruiz Almendral.

Sin.: Sofía Arana Landín.

Sin.: Javier Muguruza Arrese.